



## ALDEZ AURREKO KONTSULTA, INFORMAZIO BETEBEHARRA EZARTZEAZ.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituenak, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, informazio betebeharrei buruzko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, martxoaren 6ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Informazio betebeharrei buruzko araudiak.



<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	<b>Informazio betebeharrak ezartzea.</b>
<b>ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	<b>Informazioa zein forma eta epetan eman behar den arautzeko arautegi bat garatu behar da.</b>
<b>XEDEAK</b>	<b>Zerga Administrazioari behar duen informazioa ematea bere eginkizunak betetzeko.</b>
<b>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)</b>	<b>Irizten zaio aukerarik egokiena dela.</b>